

Euskara ezkutatua: Tolosa 1810ean

Jurgi Kintana Goiriena

(Historian doktorea)

Artikulu honetan Tolosan 1810 urte aldera euskararen egoera zein zen zirriborratuko da. Horretarako aitzakia ona eskaintzen du Tolosan lanean ziharduen lapurtar teilagin baten euskarazko eskutitzak. Herriko bizitzan euskara nagusi bazen ere mundu idatzian gaztelania erabiltzen zen. Dokumentu ofizialek sistematikoki itzultzen zuten erdarara eguneroko errealitate euskalduna. Horrexen froga polita eskaintzen du Betiri Harrieta lapurtar teilaginaren eskutitzak.¹

Lapurtar teilagin bat Tolosan

Artzabaltzako teileria, Tolosan, udalaren aginduz eraiki zen 1623 urtean. Izan ere inguruetakoa lurra edo buztina bereziki aproposa zen teilak eta adreiluak egiteko, eta herriari halako industria bat izatea interesatzen zitzaion. Teileria, bada, udalaren jabetzako baserri-lantegi bat zen. Ustiatu partikularrek egiten zuten. Horretarako udalak teileria errentan ematen zuen. Sistema horrek bi mendez iraun zuen. 1822 urtean itxi zen definitiboki Tolosako teileria. Urte horretan udalak saldu egin zuen teileria, eta ondoren teilak egiteko labea apurtu zen. Geroztik ez zen teila gehiagorik egin Tolosan. Gure istorioa, beraz, teileriaren itxiera baino urte gutxi lehenago kokatzen da, 1810 urtean, Napoleonen tropak Gipuzkoa okupatzen zuten garaian.

Une hartan, Tolosako teilagina, hau da, teileria errentan hartuta zeukan artisaua, lapurtar bat zen: Betiri Harrieta. Ez zen hala ere frantses tropekin iritsi. Inbasioa gertatu aurretik jada Tolosako teilerian ari zen lanean. Bere aurreneko aipua, dokumentuetan, 1807 urtekoa da, eta ziurrenik lehenagotik zebilen Tolosan.

XIX. mendean ez zen arraroa Ipar Euskal Herriko langileak Hegoaldean jardutea. Ofizio jakin batzuetan aritzeko bereziki estimatuak izaten ziren. 1802 urteko *Peru Abarka* eleberrian, adibidez, Nafarroa Behereko pertsonaia bat agertzen da, Joanis, Bizkaira joaten zena lanera. Eta Gipuzkoan ere, ez ziren gutxi lanbide zehatz batzuetan aurki zitezkeen mugaz bestaldeko pertsonak. Betiri Harrieta, bada, Iparraldetik Hegoaldera joandako era horretako langile espezializatu bat zen, ofizioz *maisurteilagina*, hau da, teilak, adreiluak eta gisakoak egiten aditua.

¹ Artikulu honen oinarrian Tolosan, udalaren babespean, 2010eko maiatzaren 11n emandako hitzaldia dago. Lan hau ezingo nukeen egin Xabier Alberdik, Guadi Larrartek eta Carlos Rilovak eskuzabalki erraztu didaten Tolosako udal artxibategiko informaziorik gabe. Carlos izan da teilaginaren euskarazko gutuna aurkitu duena, berak transkribatu du, eta bera izan da halaber, Xabier eta Guadirekin batera, Tolosako teileriaren inguruan hemen jasotzen dudana informazioa eman didana. Sintesi lana, Gipuzkoako beste datuak, baita ematen ditudan iritzi eta akaso okerrak ere, nire uztakoak dira.

Betiri Harrietaren datu biografiko handirik ez daukagu. Jatorriz Larresorokoa zela ematen du (Lapurdi), anaia bat baitzuen bertan, Domingo, baita arreba bat ere, Frantziska.

Zor batzuen arazoa

Betiri Harrietak Lapurdiko lau mutil enplegatu zituen 1808-1810 urte aldera. Ez dago argi Tolosako teilerian bertan izan zen ala hortik kanpo, akaso Iparraldean zuen beste negozioren batean. Kontua da Harrietak likidezia arazoak zituela, eta lau mutil horiei aspalditik zor zien soldata ordaindu ezinda zebilela.

Izan ere, 1808 urtean Tolosako udalak adreiluen enkargu handi bat egin zion teilaginari, dirutan ia 5000 errealeko kostatu zena. Enkargua bete arren bi urte geroago Betiri Harrieta oraindik itxaroten zegoen udalagandik noiz kobratuko. Arazoa zen, udalak diru gutxi zuela une hartan, frantses tropen mantenu gastuak ordaintzera behartuta baitzegoen. Egoera hartan, Betiri Harrietak zenbait erreklamazio egin zizkion 1810 urtean Tolosako udalari, berak ere zorrak zituela, eta eskatuz mesedez ordaintzeko lehenbailehen teiluen enkargu hura. Tamalez auzia nola amaitu zen ez dakigu, garaiko dokumentuek ez baitute argitzen.

Euskarazko gutuna

Betiri Harrietaren istorioak ez luke apartekorik garrantziarik izango ez balitz Tolosako artxiboan bere euskarazko gutun bat azaldu delako. Izan ere, Napoleonen garaian zor kontuak aski arruntak izan ziren. Ez aldiz euskarazko gutunak. Tolosako artxiboan gordetzen den dokumentazio praktikoki guztia gaztelaniaz dago, eta euskarazko zerbait aurkitzea ezustekoa izan da.

Gutuna Betiri Harrietaren anaiak, Domingok, idatzi zion Larresorotik Tolosara. Lau mutil haiei zor zien soldataren arazoa gogorarazten zion, eta izatez Lapurdiko epaile bat auzian eskua hartzen ari zela. Halaber zor horiek tarteko bere sinesgarritasuna negozio munduan kolokan zegoela esaten zion. Beraz lehenbailehen konpondu behar zuela diru kontua. Funtsean hori zen gutunaren mezua. Betiri Harrietak, anaiak bidalitako gutuna Tolosako udaletxean aurkeztu zuen bere egoera zein larria zen frogatzeko. Horregatik gorde da Tolosako udal artxibategian.

Forma aldetik gutuna lapurteraz idatzita dago, hau da, bi anaien jatorrizko euskalkian. Garai hartan euskal ortografia finkatu gabe zegoen, horregatik erdal kutsuko idazkera azaltzen du testuak. Gutunaren hasiera, adibidez, honakoa da: “ene aneia maitia yscribatzen daitzut bi lerro”. Gutunari puntuazio zeinu guztiak falta zaizkio. Horregatik batzuetan kosta egiten da esaldiak non hasi eta non amaitzen diren antzematea. Arretaz irakurrita, ordea, argi dago esanahia. (Amaieran, eranskin gisa, gutunaren bi bertsio jarri dira: bat transkripzio literala, Tolosako artxiboko adituek egina; eta bestea bertsio modernizatua, gutuna errazago irakurtzeko).

Euskara Gipuzkoan eta Tolosan 1810 aldera

Lehen begiratuan bitxia egiten da Tolosako artxiboan euskarazko testuak hain arraroak izatea. Ez al ziren 1810 urtean euskaldunak tolosarrak? Lapurtar bat etorri behar al zen euskaraz zerbait idaztera? Zein zen hizkuntzen errealitatea 1810 urte aldeko Tolosan?

Betiri Harrietaren gutunaz gain, ez dut Tolosa bertako 1810 urteko beste agiririk ezagutzen euskararen inguruan. Muga kronologikoak eta geografikoak zertxobait zabalduz, Gipuzkoari buruz XVIII-XIX. mende artean dauden datuak azter daitezke, eta horrek Tolosako egoera kokatzen lagundu dezake.

Gipuzkoan, garai hartan euskara biztanle gehien-gehienegunero hizkuntza zen. Juan Inazio Iztuetak, adibidez, 1843 urtean zera idatzi zuen: “Provincia labur onetako mugapean contatzen dira eun ta ogeui milla arima bezalatsu; oetaric eun milla bederic izango dira Euscarra beste itzcuntzaric ezdaquitenac”.² Hau da, Iztuetaren arabera XIX. mende erdialdean gipuzkoarren %83a euskaldun elebakarra zen. Gainerako hogeita mila gipuzkoarretatik, gehienak euskaldun elebidunak ziren eta gutxi batzuk erdaldunak. Jakina, Iztuetaren kopuruak estimazioak dira, ez errolda zehatz baten emaitzak, baina ez ziren errealitate oso urrun egongo.

Tolosa bereko daturik ez badugu ere, bada aztertzen ari garen garaiko dokumentu bat Gipuzkoako beste herri handisko bati buruz. 1807 urtean, Irun eta Lezoko eskribauak, lekukotza ofizial batean, herri bi horietako hizkuntzen egoera honela deskribatzen zuen: “el Ydioma que común y ordinariamente se usa en ambos pueblos es el natibo y bulgar bascongado, que todo originario de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa (...) lo hereda y adquiere de sus Padres, por ser la primera y única lengua que generalmente se usa y aprende desde la infancia”. Euskara, beraz, Irun eta Lezoko hizkuntza arrunta zen. Herri horietan erdara ikasi zuten batzuk bazeuden, bereziki goi mailako jendeen artean (“gente de la primera distinción”) baina horiek gutxienak ziren: “se puede calcular prudentemente que para una docena de personas de uno y otro sexo que en cualquiera de esos dos Pueblos se encuentre que posea el romance (gaztelaniaz dakitenak), se hallarán doscientas que absolutamente no lo entienden”.³ Datu horien arabera Irunen eta Lezon euskaldun elebakarren proportzioa %94koa zen 1807 urtean.

Tolosako egoera ez zen oso desberdina izango. Ziurrenik hamar lagunetik zortzi edo bederatzi euskaldun elebakarrak izango ziren, eta batek edo bik euskaldun izanik ere erdara jakingo zuten gutxi edo asko. Euskara beraz Tolosako hizkuntza guztiz nagusia zen eguneroko bizitzan: bai etxean, bai auzoan, bai plazan, bai lanean, bai aisian, eta bai konfesioan ere. Tolosan euskarak zeukan bizitasun eta osasunaren seinale argia da tradizionalki bertako hizkera hartu dela Gipuzkoa osoko euskara onentzat.

² Juan Inazio Iztueta (1847): *Guipuzcoaco Provinciaren condaira edo historia*, Donostia, V. or.

³ Aipatua in José María Jimeno Jurio (2005): *Navarra y Gipuzkoa: Historia del euskera*, Pamiela, Iruñea, 111. orria. Bertan informazio ugari aurki daiteke halaber euskararen egoeraz XVI-XVIII. mendeetako Gipuzkoan (eta Nafarroan).

Gaztelania Gipuzkoan eta Tolosan 1810 aldera

Garai honetan euskararen indarra, Tolosan eta Gipuzkoan, ukaezina bazen, gaztelaniak ere bazuen leku bat. Manuel Larramendik, XVIII. mende amaieran argi azaldu zuen nortzuk ziren Gipuzkoan gaztelania zekitenak: “Los que entienden el castellano son los eclesiásticos, los religiosos, los que han estudiado, los caballeros, los que se han criado en Castilla, y así un castellano arrastrado lo entienden también los que en lugares menores y aldeas pueden ser alcaldes y cargohabientes, mercaderes y tenderos.”⁴

Gaztelania, beraz, goiko maila sozialari lotutako hizkuntza zen. Ikasketen eta boterearen hizkuntza. Kargu publikoak betetzeko jakin beharra zegoen, baita herririk txikienean ere. Beraz prestigidun hizkuntza zen, eliteena. Horren haritik, Gipuzkoako handikiek eta eliztarrek aldika gaztelaniaz egiten zuten beren artean, “dotoreago” emateko. Baina ohartu gaztelania jakiteak ez zuela esan nahi euskara ez jakiterik, ezta euskaraz inoiz ez egiterik ere. Izatez, Larramendik aipatzen zuenez, zenbait alkatek eta kargudunek, justu-justu ulertzen zuten erdara. Beraz Gipuzkoako agintari askoren kasuan euskara zen beren ohiko hizkuntza. Izatez Gipuzkoako nobleziaren artean ere, euskaraz mintzatzea nahiko arrunta zen.

Gipuzkoako artxibategi orokorrean bada euskarazko beste gutun bat, 1766 urtekoa, Azpeitiako alkateak bere herriko jaun eta zaldunei zuzendua. Alkateak zioenez, esplikatu beharrekoa inportantea zenez, “Obetuago adizera emateco escrivicen det eusqueraz”⁵. Ohartu: gutun hori ez zegoen nekazariei edo herritar apalei zuzendua. Izatez nekazarien matxinada larria gertatzen ari zen une hartan eta horregatik idatzi zien alkateak bere kide nobleei, kontuz ibil zitezela abisatzeko. Hau da, larrialdi une batean, herriko pertsona boteretsu eta ikasienak beren artean euskaraz ari ziren. Azpeitiak, garai hartan, Tolosaren antzeko populazio zuen, biek ere 4500-5000 biztanle artean, eta uste izatekoa da bateko eta besteko eliteek antzeko hizkuntza usadioak izango zituztela. Bietan ere aristokrata eta gisakoek, gehiago edo gutxiago, gaztelania ikasiko zuten, baina esparru formal eta ofizial batzuetatik kanpo, ziurrenik euskara izango zen beren ohiko hizkuntza.

Bada Tolosari buruzko agiri bat, pixka bat dagokigun garaia baino zaharragoa, 1717 urtekoa, baina adierazgarria eliteen hizkuntza bikoiztasuna erakusten duelako. Urte hartan, ospakizun egun batean, bordon-dantzariak elizarantz zihoazen, baina bat-batean parrokoak debekatu egin zien barrura sartzea. Alkatea bordon-dantzarien alde atera zen eta izugarritzko eztabaida izan zuen kalean parrokoarekin. Eztabaida gaztelaniaz izan zen. Hor, zalantzarik gabe, autoritate gai bat zegoen jokoan, hots, ea nork zuen azken hitza baimena emateko orduan. Gaia beraz “ofiziala” zen, aginteari eta botereari lotua. Ziurrenik horregatik aritu ziren alkatea eta parrokoa gaztelaniaz oihuka, beren kargu eta maila usatzen ari zirelako eta paper horretan erdaraz egitea zelako prestigio

⁴ Manuel Larramendi (c.1764): *Corografía o descripción general de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*, aipatua in José María Larrea (1994): *Euskaldungoa erroizturik*, Pamiela, Iruñea, 40. or.

⁵ Dokumentua jasota eta aztertuta dago in David Zapirain & Carlos Mora (2003): “Docena bat guizonec artu naute”, *Notitia Vasconia*, 2, 433. or. eta hurrengoak. Gutunaren jatorrizko kokalekua: GAO CO CRI 1766, 8. kutxa.

handienekoa. Horrek ez du esan nahi eguneroko bizitzan ere halabeharrez gaztelaniaz hitz egingo zutenik. Izatez, eztabaida haren haritik izan zen epaiketan, Tolosako emakume garrantzitsuenak, tartean eskribau eta zinegotziaren emazteak, adierazi zuten beraiek ez zekitela haserrealdi hartan zer esan zen ez baitzuten gaztelaniarik ulertzen. Ez jada hitz egin, baizik ezta ulertu ere. Emazte inportanteenak erdararik ez bazekiten, argi dago jauntxoek etxeetan, senar-emazteen artean euskara besterik ez zela hitz egingo. Eta egunero euskaraz aritzen ziren pertsonak, beste jauntxo batzuekin elkartzean, hizkuntza horretan mintzatzea nahiko normala izango zen.⁶

1810 urterako agian gaztelaniaren ezagutza hedatuxeago egongo zen eliteen artean. Izan ere Tolosan hezkuntza gune aipagarriak zeuden aspalditik. Horietako inportanteena ziurrenik frantziskotarren komentuan kokatutako Arte eta Teknologia ikastetxea zen, goi mailako irakaskuntza eskaintzen zuena. Bertan gaztelaniazko hezkuntza jaso zezaketen ez soilik eliztarrek baizik baita elite laikoek ere, Tolosakoek zein atzerrikoek. Adibidez, 1791 urtean, Tolosako udalak errolda gisako bat egin zuen hirian bizi ziren atzerritarrekin (une hartan 44), eta haietako batek, Bordeletik etorriak, adierazi zuen “que hace ocho meses reside en esta villa con objeto de instruirse en la lengua castellana, y quiere continuar hasta que se perfeccione”⁷. Tolosan, bada, gaztelania ikas zitekeen. Baina “instruir” aditzak ikasketa formalak esan nahi du, ez kalean ikasten zuenik gaztelania. Ziurrenik aipatutako ikastetxe hartan ari zen estudiatzen. Handik kanpo, euskara izango zen gehien entzungo zuena.

Idazki ofizialak gaztelaniaz

Nolanahi ere bazen gaztelania erabiltzen zen esparru formal bat, oso garrantzitsua: idazki ofizialak. Tolosan eta Gipuzkoa osoan, Espainiar monarkiako lurralde guztietan bezala, XVIII-XIX. mende artean, udal ordenantzak, kontratuak, testamentuak, erreziboak eta mota guztietako paper burokratikoak gaztelaniaz idazten ziren. Gaztelaniaren erabilera ofizial ia eskusibo honen zergatia azaltzeak luze joko luke. Hemen hiru arrazoi baino ez dira aipatuko, nahiz gehiago ere baziren.

Batetik eskribauek ikasketak gaztelaniaz egiten zituzten, ez euskaraz, modu horretara aukera baitzuten espainiar monarkia zabaleko edozein lurraldetan lan egiteko. Ondorioz Tolosan aritu, Sevillan aritu, Valentzian aritu ala Manilan aritu gaztelaniaz idatziko zuten. Bigarrenik, idazki burokratikoaren helburua akordioaren konstantzia utzi eta berme juridiko bat ematea zen, azkenean, epaitegietan amaituz gero, egin zen akordioa zein zen frogatu ahal izateko. Espainiako justizia sistemak gaztelaniaz funtzionatzen zuenez, logikoa zen akordioaren izkribuak erdaraz egotea. Oroitu Gipuzkoako auzien azken instantzia Valladolideko Chancillerian zegoela; eta hain gora heldu gabe ere, Gipuzkoa bertako goren instantzia korregidorea zen, Espainiako erregeak ezartzen zuena eta gaztelaniaz lan egiteko prestatuta zegoena. Beraz justiziaren aurrean eraginkorrak izateko dokumentuek erdaraz egon behar zuten. Bigarren arrazoi honekin lotuta dago hirugarrena ere. Espainiako monarkiak, bere boterea sendotzeko, beheagoko mailetan

⁶ 1717 kasua jasotzen da in José María Jimeno Jurio (2005): *Navarra y Gipuzkoa: Historia del euskera*, Pamiela, Iruñea.

⁷ Guadi Larrartek erraztu dit erreferentzia.

ari ziren erakunde eta partikularren akordioak kontrolatu nahi zituen. Horregatik paper guztiak hizkuntza bakarrean idatzita egotea interesatzen zitzaion, gaztelaniaz, eta hori lortzeko behar ziren neurri eta legeak ezarri zituen.

Beraz, printzipioz paper ofizialak gaztelaniaz idazten ziren. Berdin zuen Tolosan egiten zen errezibotxo bat baino ez izatea eta izkribu horretako parte interesatu guztiak euskaldun elebakarrak izatea. Balio ofiziala izateko gaztelaniaz jarri beharra zegoen akordioa. Eta horretarako zeuden eskribauak: beren bezeroek euskaraz esaten zieten erdaraz idazteko. Hori zen beren ofizioa.

Betiri Harrieta = Pedro de Arrieta

Esan liteke eskribauak itzultzaile gisakoak zirela. Ahozko errealitate euskalduna gaztelaniazko testuetara itzultzen zuten. Eta hain ziren itzultzaile metodikoak, ezen gaur egun, artxiboetan, adibidez Tolosan, apenas aurki daitekeen euskarazko testu bakanen bat, gaztelaniazko paperak milaka eta milaka diren bitartean. Baina fida ote gaitzke “itzulpen” horiez? *Traduttore, traditore* dio italiar esaerak. Gure kasuan, eskribau-itzultzaileek garaiko errealitate linguistikoa “traizionatzen” zuten. Zeren artxiboetako dokumentazio masiboki erdarazko irakurrita nekez antzeman daiteke atzean zegoen gizartea ia osorik euskaldun elebakarra zenik.

Noizean behin, ordea, zerbait eskapatzen da. Erdal dokumentu baten erdian esplizituki aipa daiteke urliak zerbait euskaraz adierazi zuela. Inklusio euskarazko hitzen bat edo beste jaso daiteke, nahiz gutxitan izan⁸. Edo ezusteko dokumentu bat ager daiteke, osoki euskaraz idatzia⁹. Betiri Harrietaren gutuna adibidez. Horri esker dakigu teilaginak euskaraz zekiela. Zer esanik ez, bestela ere logikoa zen pentsatzea Betiri Harrietak Larresorokoa izanik eta gainera Tolosan lan eginik euskaraz jakin beharko zuela. Baina anaiaren gutunik gabe hori suposizio soil bat izango zen. Izan ere, kasu konkretu honetan, teilagina aipatzen duten Tolosako erdarazko dokumentuetan ez dago inolako zantzurik euskaraz bazekiela baieztatzeko. Are gehiago:

Gaztelaniazko testuetan, Betiri Harrieta, *Pedro de Arrieta* gisa azaltzen da. Bai: garai hartan dokumentu ofizialetan pertsona izenak ere gaztelaniara itzultzen ziren. Izan ere, *Pedro*, izen ezagun baten gaztelaniazko forma da. Euskaraz, garai hartan, Bizkai aldean *Peru* forma erabiltzen zen, Gipuzkoa-Nafarroa aldean gehien bat *Pello*, eta Iparraldean *Petri* edo *Betiri*. Teilaginaren izenaren euskal forma zein zen zalantzarik gabe esan

⁸ Gipuzkoako gaztelaniazko ehunka dokumentu judizialen artean, euskarazko hitz eta esaldi solteen adibideak bildu ditu Carlos Rilova-k (2006): “Las palabras olvidadas. Una aproximación a nuevas fuentes para el estudio del euskera. Los archivos criminales del País Vasco (siglos XVI-XIX)”, *Oihenart*, 21, 409-423.

⁹ Carlos Rilovak, euskara hutsezko zenbait agiri topatu ditu. Horietako bat, oso nabarmena, 1766 urteko ezkontza aurreakordio bat da, Urretxun egina, deigarria guztiz balio legala izateko pretentsioa baitzuen euskaraz idatzita egon arren, noiz eta agiri ofizial praktikoki guztiak gaztelaniazkoak zirenean. Testua hemen ikus daiteke (http://www.euskonews.com/0427zkb/gaia42703_01.html), eta horri buruzko azalpenak in Carlos Rilova (2008): “Nuevas notas sobre el euskera olvidado”, *Oihenart*, 23, 455-466. Gisa bereko euskarazko dokumentu gehiagotarako ikus ere Xabier Alberdi & Carlos Rilova (1998): *Iraganaren ahotsak*, Luis Urantzadi Kultur Taldea, Irun, eta Imanol Trebiño (2001): *Administrazio zibileko testu historikoak*, HAEE-IVAP (azken hauetako gehienak eta beste hainbat hemen daude bilduta: <http://klasikoak.armiarma.com/zaharrak.htm>).

daiteke. Bere anaiak argi eta garbi *Betiri* deitzen zion, eta helbide horrekin bidali zuen gutuna Tolosara. Beraz hala ezagutuko zuten Tolosako euskaldunek ere. Aldiz, anaiaren gutunean *Pedro* forma ez zen inon aipatzen, ezta “*de*” *Arrieta*-rik ere, baizik *Harrieta* soil. Kontrara, Tolosako gainerako agirietan, gaztelaniaz idatzitakoetan, *Pedro de Arrieta* agertzen da hiru-lau aldiz (behin *Pedro de Harrieta*), eta *Betiri* inoiz ere ez. Izatez, teilaginak bere eskuz sinatu zuen gaztelaniazko errezibo batean *Pedro de Arrieta* idatzi zuen berak ere. Dударik gabe hala egiteko esango zion eskribauak. Garaian hori zen agiri ofizialetako ohitura eta inork ez zuen eztabaidatzen.

Gaur egungo historialarien artean honelako gauzak oharkabea geratu ohi dira. Agiriek zerbait gaztelaniaz badiote, hala izango zela pentsatzen dugu, ohartu gabe eskribauen itzulpen lana tarteko zegoela. Gure teilagina ziurtasun osoz esan dezakegu *Betiri Harrieta* zela bere anaiak hala deitzen ziolako eta hori frogatzen duen gutuna aurkitu dugulako. Euskarazko gutun bakar hau agertu izan ez balitz *Pedro de Arrieta* gisa geratuko zen betiko. Beste zenbat *Pedro*, *Catalina*, *Josef* edo *Magdalena* ez ote dira aipatzen garai bereko Tolosako erdarazko izkribuetan, egiazki, eguneroko bizitzan, mundu guztiak *Pello*, *Katalin*, *Joxepe* edo *Madalen* deitzen zituenak?

Teilaginaren adibideak argi erakusten du erdarazko agiriek itzuli egiten zutela euskarazko errealitatea. Eta gaztelaniazko paperen atzean mundu nagusiki euskaldun bat zegoela, testu gehienetan ezkutatuta geratu zaiguna. Aurkitutako gutunak, ordea, frogatzen du, ere, arretaz bilatuz gero euskarazko errealitatea berreskuratzea posible dela. Horretan saiatzea da kontua.

1. ERANSKINA: GUTUNAREN TRANSKRIPZIOA

(Carlos Rilovak egina)

Tolosako Udal Artxiboa A 1, 57

1810 udal aktak

(/): lerro aldaketaren ikurra

(Gurutzea)

(379 aurre orria) eguina larrasoron marzuan 13 (/) ene aneia maitia yscribatzen daitzut (/) bi lerro onzagaira guciac yancuari- (/) esquer eta desiraten guinuque çuere (/) hala yzaitia mundu guçia estonatuia (/) dago çure oregoitias çure mutilac (/) laurac eranegun baquesco yuyan yzan (/) dira eta ni ere ereman arazi nîtuîn (sic) (/) baquesco ^yuyac errañçautan bi urte untan (/) mutilac pagatzeco denbora dela eta (/) baldin espadituzu pagazen martzuan (/) hogoi eta borzeco yustizia libratzen (/) datzula etçian eta badaquiçu çuonic (/) ere cure (sic) mutilc (sic) ezin dausquela orai- (sic) (/) artian ere hanitz sofritu yzan dute (/) eta esduzu çeren penzatu (sic) guisa ortan (/) mutilic gueyago yzattia (379 atze orria)

(Gurutzea)

arriba françisca baionanda (/) musiu dibartequin eta gastigaten (/) dauzu musiu dibarate baldin espa- (/) çieste pagatzen erriori despedit- (/) ceco eta cer (sic) artzeco duzun çure (/) garbitasunac eqartzeco eta ytz (/) emaiten datzula çure artzecua (eta, tachado) (/) coratuco datzula bayonatic ygitu gabe (/) bai eta oraino çuri bi urte untan (/) oriec gasta araci daitzutenac eta (/) çure denbora galdutacuen (sic) yornal (/) goçiac aînzinian eta otoisten çitu (/) esdezacun (sic) trabideric ar erri ortan (/) geiago çeren oric direla causa (/) cure (sic) credit guçia galdu duçun (/) mundu guçian bearrago bazinu ere (/) etzinueque mutilba erri artan pagatu (/) gaba (sic) ainzinerat gelditzen nis (sic) cure (sic) (/) cerbitzari (sic) fidel domingo harrieta

(sinadura)

Gehikuntza:

(Gurutzea)

Letra hau yzanenda (/) erremetituia (sic) betiri (/) harrieti tolosaco teilainari

2. ERANSKINA: GUTUNAREN BERTSIO MODERNIZATUA

(Oharra: Gutunean datozen jatorrizko hitzak eta beren ordena ez dira ezertan aldatu bertsio honetan; ortografia, aldiz, gaurkotu egin da eta puntuazio zeiniek erantsi dira. Parentesi artean testua hobeto ulertzen lagun dezaketen hitz sinonimoak edo bestelako argibideak erantsi dira. J.K.G.)

Egina Larrasoron martxoaren 13an.

Ene anaia maitea, izkribatzen dizkizut bi lerro. Ontsa gara guztiak Jainkoari esker eta desiratzen genuke zu ere hala izatea. Mundu guztia estonatu (harritu) dago zure hor egoteaz. Zure mutilak, laurak, herenegun bakezko jujean (bake-epailean) izan dira eta ere eramana ninduten (ni, bertara). Bakezko jujeak erran zidan bi urte hauetan mutilak pagatzeko denbora izan dela eta baldin ez badituzu pagatzen martxoaren 25erako justizia libratzen dizula etzian (zure aurkako atxilotze agindua emango duela?). Eta badakizu zuk onik ere zure mutilek ezin dutela (gehiago). Orain artean ere anitz sufritu izan dute, eta ez duzu zeren (zergatik) pentsatu gisa horretan mutilik gehiago izatea.

Arreba Frantziska Baionan da *musiu* (jaun) Dibaratekin. Eta gaztigatzen (abisatzen) dizu *musiu* Dibaratek baldin ez badituzu pagatzen herri hori (?) despeditzeko; eta zer hartzeko duzun zure garbitasunak ekartzeko; eta hitz ematen dizula zure hartzekoa kobratuko dizula Baionatik higitu gabe. Bai eta oraino zuri urte hauetan horiek gastatuarazi dizkizutenak eta zure denbora galdua zuen jornal (soldata) guztiak aitzinean. Eta otoizten (erregutzen) dizu ez dezazun trabiderik (lanik?) har herri horretan gehiago zeren horiek direla kausa zure kreditu guztia galdu duzu. Mundu guztian beharrago bazenu ere ez zenuke mutil bat herri hartan pagatu gabe aitzinerat gelditzen.

Naiz zure zerbitzari fidel, Domingo Harrieta.

Letra (gutun) hau izanen da erremittua (bidalia) Betiri Harrietari, Tolosako teilaginari